

TREBAKUNTZA 2014-03: DESBERDIN

Gaztelaniaren eraginez, asko ugaritu dira “Herri desberdinetan aurkeztu zuten proiektua” edo “Herriko elkarte desberdinen erabakia izan da” erako esaldiak.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Eskualdeko kultur eragile desberdinek sinatu dute agiria.*
2. * *Lau langile desberdinek esan dute greba egingo dutela asteartean.*
3. * *Bizkaiko herri desberdinetan arazoak izan dituzte uholdeekin.*
4. * *Hamalau lan desberdin aurkeztu zituzten, eta azkenean gazteenak irabazi du.*
5. * *Lasterketa egunean, udaltzainek isunak jarri zizkieten herriko kale desberdinetan aparkaturik zeuden ibilgailuen jabeei.*

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Euskaraz baditugu “*desberdin*” horren ordeaz erabiltzeko forma egokiak, eta kasu batzuetan, hitza bera kenduta ere esaldia ondo geratzen da.

1. Ad. Eskualdeko **zenbait/hainbat kultur eragilek** sinatu dute agiria.
2. Ad. **Lau langilek** esan dute greba egingo dutela asteartean.
3. Ad. Bizkaiko **herri batzuetan** arazoak izan dituzte uholdeekin.
Bizkaiko **zenbait herritan** arazoak izan dituzte uholdeekin.
4. Ad. **Hamalau lan** aurkeztu zituzten, eta azkenean gazteenak irabazi du.
5. Ad. Lasterketa egunean, udaltzainek isunak jarri zizkieten herriko **kale batzuetan** aparkaturik zeuden ibilgailuen jabeei.
Lasterketa egunean, udaltzainek isunak jarri zizkieten herriko **zenbait kaletan** aparkaturik zeuden ibilgailuen jabeei.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.org (Iratxe)

Hurrengora arte!

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99